



Andoaindarra  
Gipuzkoako eta Euskal  
Herriko txapelketa  
ugari irabazitakoa da

2015eko uztailaren 10a, 448 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ANA CERRO ARKU TIRATZAILA

## Urnietaren 400. urteurreneko ospakizunak, igande honetan



Diana, erraldoi eta buruhandien kalejira, musika eta dantza ikuskizuna, ekitaldi instituzionala eta jakien dastaketa igandeko ekitaldien artean aipagarrienak.

Andoain eta Gipuzkoako beste herriekin batera, Urnietak ere herri izaera lortu zuen 1615ean. Hilabete batzuk beranduago gertatu zen hori. Gertaera historiko hura Rosa Ayerbe historialariak ondo baino hobeto azaldu du Udalaren enkarguz argitaratu zuen liburuan. Liburu horrez gain,

Gazte Festetan Txanbolin taldeak eta Egapeko ikasleek mendeurrena gogoan izan zuten, dantza soka eskainiz.

Igandean, mendeurrenaren egunean, ekitaldi instituzionala antolatu dute. Gipuzkoako ordezkari nagusiak Urnietara hurbilduko dira.

[EGITARAU, 8.ORRIALDEA]

## Ardura politikoen banaketa

Datozen lau urteetako antolaketa erabakita utzi du Urnietako Udalak. Hiru batzorde handietan bilduko dituzte lansail guztiak: antolakuntza, lurraldea eta hiritasuna.

[URNIETA, 2.ORRIALDEA]

## 3x3 Street basket txapelketa

Astelehenean abiatuko da basket txapelketaren edizio berria, Andoaingo Gaztetxean. Uztailaren 24an amaituko da.

## Desafioa Kaletxiki taldeak irabazi zuen



Ikusgarria eta emozioz beterikoa izan zen Kaletxikiko eta San Esteban auzoko ki-deen arteko desafioa.

[ANDOAIN, 4-5.orrialdeak]

## “Ongi etorri baserrira” ekimenak bisitari ugari bildu zituen Urnietan



Ardiak ukitu eta gaztak ikusteko aukera izan zuten Adarrazpi baserrian.



Sagastiak eta sagardoa ekoizpena gertutik ezagutu zuten Eula baserrian.

Baserritarrak eta kontsumitzaileak gerturatzeko asmoz, ate irekiera jardunaldiak antolatu zituen ENBA sindikatuak.

**B**aserrian egiten den lana baloratu asmoz, jardunaldi irekiak antolatu dituzte bigarren urtez jarraian: “Gure baserrietako atek zabaldu nahi ditugu jendeak gure

etxeak, familiak, soroak eta animaliak ezagutu ditzan eta geuk ekoizten duguna bertatik ezagutu ondoren, gehiago baloratu dezan”. Urte batetik bestera bisitarien kopurua eta ezagutu daitezkeen baserriak bikoiztu egin

dira. Aurreko ostiralean Urnietara Donostialdeko eta Gipuzkoako bisitari ugari hurbildu ziren, ekimenarekin bat egin duten Adarrazpi eta Eula baserrietara.

[URNIETA, 3.ORRIALDEA]



Urnietako  
udala

## ‘Urnietak 400’ ekitaldi instituzionala

UZTAILAK 12, IGANDEA. EGITARAUA:

10:00 Diana Txanbolin txistulari bandarekin.

11:00-13:00 Erraldoi eta Buruhandien topaketa.

12:45 Txanbolin txistulari bandak eta Egape Dantza Taldeko dantzariak 400. urteurrenerako bereziki prestatutako doinu eta dantza eskainiko dute San Joan plazan. Ondoren, herriko sagardo eta gaztagileen dastaketa San Joan plazan. Ordezkari instituzionaleri harrera eta ekitaldi nagusia udaletxean.

Zatuz  
zeu ere,  
igande  
honetan



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

## Hiazinto lagun eta eredu

**D**uela egun gutxi izan du urtebetetzea (85) eta orain aste batzuk Lekaion egin zen Hiazintoren liburuaren aurkezpena. Ia bukatu det. Txundituta gelditu naiz apaiz izateko era berria sortu zuen edo zutenekin. Bere bizitza ematen pasa du eta ez hartzen. Udalekuetan 24 ordu igarotzen zuen haurren inguruan eta andereño, begirale, sukaldari eta denak indartzen, laguntzen. Garai bateko apaiz modelo ezberdina. Guretzat, gazteagoentzat, zorieko argia eta grazia izan ziren. Eskerrik asko.

Hiazinto gizon bokazioduna izan zen, haurrentzat eta guraso eta hezitzaile guztientzat. Ez zen eskola emateko, baizik arduradunentzat, horiek suspertzeko, esnatzeko, grina bizi nabaritu zuen. Euskal Herriak probatu du ikastolekin zer indarra duen gurasoengan, haurrak euskalduntzeko zer egiteko prest dagoen, zein modutara antolatu den helburu horren jiran, zenbat guraso, andereño, lagun sortu diren.

Ekintza horiei esker apaiz zerbitzariak, apalak, herrikoikiak, behartsuak, langileak ikusi genituen, aurretik ordura arte ikusitakoengandik ezberdinak.

Nire idatzietan ari naiz esan eta esan lehenengo zer nolako tokia betetzen duten haurrak gurasoen bihotzetan, zer eragina duten zuen bihotzetan, zer

egiteko gai zireten. Gure aurrekoek eman zigutena ez zela dena ona, zehatz-mehatz jakin beharrean gaude hau dena. Lehengoa ematea ez da nahikoa. Heziketa berri bat eraman behar da aurrera, helburua zoriona ematea duena.

Horretan ari diren jakintsuak zortzi betebeharrak aurkitu dituzte: betebeharrak bat uzten baldin badugu bazterrean kalte handiak izango dituzte. Hori horrela izanik komeni da betebeharrak bakoitza zer den eta zer eskatzen duen, zein ondorio onak dituen eta, betetzen ez bada, zein ondorio txar ekar ditzakeen jakitea... Nola azaldu haurrei, nola esan, nola praktikatu. Beste gurasoen esperientziak nola praktikatu. Datorren idatzian azalduko dut zein 8 betebeharrak diren horiek.

Nik ere katekesia gurasoei ematean astez aste izugarriko poza izaten nuen, ez naiz inoiz aspertu lantegi horretan. Nire misioa Urnietan hau baita: gurasoak eta haurren arduradunak esnatzea haurrei eman diezazkien eman dezakezen guztia. Urtero ari gara ikastaldi bat antolatzen eta oraingoz erantzun kaskarra jasotzen degu. Ikastaldiaren gaia 8 betebeharrak horien inguruan da. Zer eduki duen bakoitzak ondo entenditu. Hori adierazteko zer eta nola esan, zer egin eta zer ez.

Hiru batzorde nagusi osatu dituzte, datozen lau urteetarako

## Udal arduren banaketa lehen batzarraldian

**A**gintaldi berrian Udal kudeaketa hiru batzorde trinkoetan egituratuko da. Hirigintza, kultura, kirola, gizarte zerbitzuak eta gainerako sail guztiak hiru batzordeetan kontzentratuko dituztela iragarri zuten uztailearen 7ko plenoan. Alkatetzaren ardurez gain, beraz, hiru azpi atal nagusi izango dira hurrengo lau urteetan. Hauexek:

- **Antolakuntza** batzordea. Arduraduna: Maribel Vaquero. Atal nagusiak: Kontu hartzailetza, eskualdeko garapen agentzia...
- **Lurraldea** batzordea. Arduraduna: Jorge Segurado. Atal nagusiak: Hirigintza, landa eremua, zabor bilketa...

- **Hiritartasuna** batzordea. Arduraduna: David Rosco. Atal nagusiak: Hezkuntza, gazteria, berdintasuna...

Beste bi batzorde gehiago osatu dituzte. Urtean behin edo bitan osatzen den kontuen batzorde berezia, Maribel Vaquerok zuzenduko duena. Eta, bostgarrena, aurreko agintaldiko lanari jarraipena emango dion Langardari buruzko batzorde berezia. Aurreko lau urteetan bezala EH Bilduko Yurramendik zuzenduko du.

### Bozeramaileak:

Maribel Vaquero (EAJ), Itziar Artola (EH Bildu) eta Consuelo Frutos (PSE-EE).

### Tokiko gobernu batzordea:

Mikel Pagola eta lau alkateordeak. Hurrenez hurren: Maribel Vaquero, Jorge Segurado, Itziar Artola eta Consuelo Frutos.

### Liberazio politikoak:

Mikel Pagola alkatea egun osoz, Jorge Segurado eta David Rosco lanaldiaren %55a, Itziar Artola lanaldiaren %50a eta Consuelo Frutos lanaldiaren %40a.

### Udal batzarraldiak:

Hilabete bakoitietan, azken asteartean 19:00etan hasita. Datorrena, aldiz, aste bat aurreratuko dute. Irailaren 22an izango da, Sanmielen aurreko astean.

Iñistorrak proposamenak egiteko aukera zabaldu du

## “Urnietar Prestu 2015”

**A**urten, zortzigarrenez, Iñistorrak *Urnietar prestu 2015* ohorezko izendapena egingo du Sanmieletan, irailaren 27an antolatuko duen Iñistorjaian. Sari hau erabakitzeke garaian, Iñistorrak Urnietako beste herritar, elkarte eta eragileei aukera eskaini nahi die bere proposamena egin dezaten, adieraziz euren iritziz nork duen nahikoa merezimendu sari hori jasotzeko aurten.

Gogorarazi nahi dute Urnieta edo urnietarren alde euskararen, kulturaren, kirolaren, gizarte ongizatearen edo, oro har, herriko jardunaren alorretan esku zabaltasunez, elkartasunagatik edo herri onura eraginez egindako lan sarigarri apartak eskertzeko xedez sortu zela ohorezko izendapena. Gogorarazi nahi dute, era berean, izendapena egin dakiokela ere aipaturiko alorretakoren batean lan egin duenari baina Urnietako herria gaintuz, alegia, Gipuzkoa mailan edota Euskal Herrian mailan. Sariturikoa, nolahi ere, urnietarra behar du izan. Izendapena hori jasotzeko proposamena egin nahi duen herritar edo elkarteak bazkuna@larramendi.org helbidera idatzi besterik ez du egin behar, eta bertan adierazi nor proposatzen duen eta zergatik, gutxieneko merezimendu batzuk adieraziz.



Iazko edizioan Edu Muruamendiak dantzari eta koreografoa omendu zuten.

*Sanmieletako Iñistorjaia eta Urnietar prestu omenaldia, ziuurrenik, irailaren 27an antolatuko dituzte Jakutegi plazan*

### EPAIMAHAIA ETA SARI EMATEA

Proposamen guztiak Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarrak izendaturiko epaimahaia aztertuko ditu, aurkezturiko merezimenduen arabera baloratu eta uztaila amaitu aurretik hartuko du erabakia. Sari edo izendapena hutsik ere gera liteke.

Uztailearen amaieran emango da sarituaren berri, baina izen-

dapena jasotzeko ekitaldia, urtero bezala, Sanmieletako Iñistorjaian izango da, aurten, ziuurrenik, irailaren 27an, igandearrekin, Jakutegi plazako herri bazkaria amaitu ostean. Informazio gehiago nahi duenak dei egin dezake ere (656 782 521).

### URNIETAR PRESTU, URTEZ URTE

- Martxeli Gorriti (2008).
- Praixku Belauntzaran (2009).
- Juantxo Gorostidi (2010).
- Urnietako emakume baserritarrak (2011).
- Juan Iguaran eta Martin Lizeaga (2012).
- Iñaki Aranzadi (2013).
- Edu Muruamendiak (2014).

## EGAPE DANTZA TALDEA KATALUNIAR LURRETAN



Vilafranca del Penedes herrian dantzan aritu ziren, aurreko asteburuan.

Egape dantza taldeko hogeita lau dantzari Vilafranca del Penedes herrian euskal dantza erakustaldia eskaini zuten, bertako Falcons de Vilafranca taldeak gonbidatuta. Hangoakiazko udahasieran Urnietara etorri ziren eta San Juan plazan giza dorre ikusgarriak egin zituzten. Oraingo honetan urnietarrek Mediterraneo aldera egin dute bidaia,

eta esperientzia ona izan dela aitortu ere: "Gure dantzari gazteak aho zabali utzi dituzte kataluniarrak, euskal dantza tradizionalatik abiatuta koreografi garaikideekin ordu eta laurdeneko ikuskizuna eskaini baitzuten Sant Francesc Ramblan". Kataluniar eta euskaldunen arteko elkar trukearen hazia erein delakoan daude.

ENBA SINDIKATUAREN "ONGI ETORRI BASERRIRA" EKIMENA

# Nezakaral ustiapenak gertutik ezagutzeko aukera

Aurreko ostiralean Goiburuko Adarrazpin eta Lategiko Eulan bisitari taldeak jaso zituzten, baserri bakoitzean ekoizten dena gertutik ezagutzeko asmoz.

Familia giroan egiteko bisitaldi aproposak dira, parte hartzean urtetik urtera goruntz doazenak. ENBA nekazaral sindikatua izan da ekimenaren sustatzailea.

**G**oizeko hamaiketarako hogeitaz hamar taldea bilduta zegoen Adarrazpi baserriaren kanpoaldean, bisitaldiari ekiteko prest. Familiak, senar-emazteak, kazetariak... ENBA sindikatuak martxan jarritako "Ongi Etorri baserrira" ekimenak erantzun bikaina izan zuen Urnietan. Sindikatuko Iñaki Goenaga eta Adarrazpiko Ima Iriondoren gidaritzapean, bisitariak baserriaren ondoko zelaira abiatu ziren. Bertan zegoen artaldeetako bat, une honetan beste bi gehiago Aralar aldean larrean dituztelako. Idiazabal gazta prestatzeko prozedura azaldu aurretik, ardiak zikloen inguruko azalpenak eskaini zituen. Bospasei hilabeteko zikloak dira ardiaren haurdunaldia eta edoskitzea kontutan harturik. Azalpenak eman bitartean, zakurraren laguntzarekin, artaldea bisitariengana hurbilazatu zuen. Haurrek biziki gozatu zuten arkumetxoa gertu izan zutenean.

Hamar urte izango dira Mikel Beldarrain eta Ima Iriondo senar-emazteak nekazaral ustiakuntzari ekin zionetik. Tailerreko lanak utzi eta ardiekin hasi ziren. Beldarrainek Arantzazuko artzain eskolan izena eman zuen. Bi negu Zaldibian igaro eta gero, Ergobian zuen baserria saldu eta Urnietan lur sailak erosi zituen. Gaur egun ardi gazta ekoizle ezaguna da eta Basque Cooltour ekimenarekin batera, nazioarteko bisitari ugari jasotzen ditu Adarrazpi baserrian bertan. Turistek egin bezala, aurreko ostiraleko bisitaldiaren amaieran bategi bano gehiagok gazta bertatik bertara erosteko aukera baliatu zuen.

Lehen bisitaldia amaituta, bisitariak Goiburutik Lategira jaitsi ziren. Han zain zegoen Eula baserriko Aitor Iguaran. Sagardogileak ere kanpoaldean eskaini zituen lehen azalpenak. Lehenik eta behin, sagarra zuhaiztietatik baserrira



Iriondok baserriko atea ireki zizkien bisitariari. Artaldea ezagutu zuten lehenik.



Gazta egiteko prozesua zehatz-mehatz azaldu zuen.

*Hamar urte izango dira Mikel Beldarrain eta Ima Iriondo senar-emazteak nekazaral ustiakuntzari ekin zionetik*

gerturatzeko azaldu zuen. Kanpoaldean dagoen tresneriarekin sagarra batu, garbitu eta txikitu egiten dute.

Bisitariak baserri ondoko sagastietara abiatu ziren ondoren. Lan asko ematen dute, eta laster bilketari ekingo diotela gogorarazi zuen. Abuztuaren amaieran, irailaren hasieran, orduantxe hasiko dira denboraldi berriko sagardoa izango denaren fruitua biltzen.



Aitor Iguaran Eula baserriaren kanpoaldean, sagarra jaso ondoren sagardoa egiteko lehen pausak azaltzen.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Gipuzkoako**  
**Foru Aldundia**  
Euskara Zuzendaritza

## KALETXIKIKO JAIK 2015

# Giro ederrean igaro dira Kaletxikiko jaiak

Ostiral arratsaldean hasi eta igande gauera arte, musika eta festa doinuak nagusitu ziren Kaletxikin. Aurtengoan Sanjuanak eta Kaletxikiko jaien artean astebeteko tartea utzi dute, eta parte hartzea-

ri dagokionez mesedegarria izan dela esan daiteke. Auzokideez gain, herritar asko hurbildu ziren asteburu osoan zehar. Bereziki, igande arratsaldeko auzotarren arteko desafiara.



Larunbat gauean Ontza elkartearen kanpoaldean lehen saioa egin eta gero, zaharren egoitzara abiatu ziren.



Danborrada ederki entzuten zen Berrozpeko kaperan.



Amasa-Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia, ostiral iluntzean.



Txistulariak, Kandido, Txikitxuak eta auzoko gaztetxoak jaiari hasiera emateko prest.



Sardin jatea, jaien hasierako hitzordu klasikoa Kaletxikiko jaietan.



Dozenaka auzotar eta herrikide bildu ziren ostiral iluntzean, jaien hasieran.

## KALETXIKIKO JAIK 2015

Azken segunduak ere kontutan hartu behar izan zituzten desafioaren garailea erabakitzeko. Estu-estu ibili ziren Kaletxikiko eta San Esteban auzoko kideak, proba ezberdinetan. Emozio hori ikusleengana iritsi zen eta hainbat unetan gogo biziz entzun ziren baten eta bestearen aldeko animoak. Auzoan bertan geratu zen txapela, oraingoan. Ikusi behar abuztuko errebantxan nor gailentzen den. Goiburuko jaietan esperientzia errepikatuko dute. Proba batzuk aldatuko badira ere, emozioa ziurtatuta izango da. Desafioan adiskidetasun giro ona nagusitu zen, Ontza elkartearen partaide guztien arteko afariarekin amaitu zena.



Auzoen arteko herri kirol desafioan parte hartu zuten kideak. Nor baino nor aritu ziren Kaletxikiko eta San Esteban auzoko kideak.



Estebe Lopez de Munain eta Josu Otamendi ingudearekin.



Maitane Lopez de Munain zaku lasterketan.



Maite Petrikorena pirrinka proban.



Kandido eta txikitxoak, Kaletxikiko protagonista nagusietakoak.



Balbino Castro, Sagrario Ikutza eta Joseba Arbaolaza 80 urteko auzokideak omentzearekin batera, Jai Batzordeko Nekane Lasa omendu zuten ere herri bazkariaren hogeita bostgarren urteurrenean.



San Juan jaietan gertatu bezala, apar festa ekitaldi gogoangarrietakoa izan zen haurrentzat.



Gorritiren animallekin ikuskizuna ziurtatuta dago.

## Karrikako jaiak, egitaraua

- **Uztailak 17, ostirala**
  - 19:00 Txupinazoa.
  - 19:15 Buruhandiak.
  - 19:30 Haur txokolatada.
  - 20:00 Sardin jatea.
  - 22:30 Karrika Fest: UK Bill, Highlights.
- **Uztailak 18, larunbata**
  - 11:00 Haur ludoteka.
  - 11:00 Motozaleen bilkura.
  - 11:30 Haur puzgarriak.
  - 12:30 Paella lehiaketa.
  - 16:30 Haur puzgarriak.
  - 18:30 Apar festa.
- 19:00 Kirol erakustaldia.
- 20:30 Afaria.
- 22:30 Danborrada.
- 23:00 DJ Nemux. Disko-festa, batxuri zopa.
- **Uztailak 19, igandea**
  - 11:30 Meza.
  - 12:30 Patata tortila eta sargardo dastaketa.
  - 12:45 Toka txapelketa.
  - 17:30 Play back saioa.
  - 19:30 Txorixo errea.
  - 20:30 DJak.
  - 23:00 Jaien amaiera.

## Adiskidetasun partida



Aurreko larunbatean Taverne de la Valdignako taldeak (Valentzia) benjamin mailako Euskalduna taldeko bi taldeekin adiskidetasunezko partida jokatu zuen. Han bizi den Josu Yarza andoaindar

rrak antolatu zuen ekitaldia. Sarean ikusgai daude partidako argazkiak. Partidaren hasieran, Sonia Antolinez eta Manex Etxeberria Urkiko dantzariak jokalarien omenez agurra dantzatu zuten.

## Ongi etorri ekitaldia



Udaletxean harrera egin zieten haur sahararrei, aurreko ostegunean. Aurtan, bost neska etorri dira eta horietatik

bi inoiz etorri gabeak: Majuba eta Lala. Haurrei eta etxean hartzen dituzten familiariei harrera egin zieten.

## Jon Lizarralde gogoan



1990eko ekainaren 25ean Irunberriko arroilan Jon Lizarralde andoaindarra hilik

agertu zen. Omenaldi ekitaldia egin zioten haren senide eta herrikideek.

Euskal jatorriko Picardi eta Ardanaz gazteen egonaldia

## Argentinako 'andoaindarrak'

**F**rancisco Picardi eta Alfonso Ardanaz gazte argentinarrak Andoainen daramate denboraldi bat. Necochea hiriko (Buenos Aires) Euskal Etxeko kideak dira, eta Euskal Herriko kulturaren, ohituren, jaien eta paraje naturalen berri izateko etorri dira.

**Euskal Herrira etorri orduko, Axeri dantzan dantzari gisa ikusi zaituztegu...**

**Francisco Picardi:** Polita izan da bizipena. Bertakoak gogotik saiatu ziren gu integratzen, eta egun biribila suertatu zitzaigun bizitzea. Argentinan dantza taldeko kideak gara umetatik, eta ez zitzaigun gehiegi kostatu. Entseguetan parte hartuz, nahiko ondo prestatuta irten ginen. Bikaina, aldi berean, bazkari eta bazkal osteko giroa izan zen: Bere etxean hartu gaituen Jon Iraola dultzaina jotzen, eta dantzan eta kantari mundu guztia!

**Alfonso Ardanaz:** Harrigarriena erritual guztiaren ordutegia eta erritmoa egin zitzaigun. Ez gaude ohituta goizean jaiki eta berehala gosaltzera. Tortila pintxoak eta ura edatera mugatu zen gure gosaria, ez baitzitzaigun gehiago sartzen! Gutxiago ohituta gaude eguerdian hasita ordu eta gehiagoko dantza saioa egitera! Argentinan, dantza jaialdiak gau aldera antolatzen dira, eta gainera, saioen artean atsedean hartzen dugun, hurrenari ekin aurretik.

**Tradizio gehiago ezagutu al dituzue egunotan?**

**A.A.:** San Martzialeko alardean izan gara. Ikusgarria da, baina emakumeekin daukaten bazterkeria hori ulertu ezinik itzuli ginen etxera.

**F.P.:** Hernaniko Axeri dantzan ere izan ginen. Andoaingoan ez bezala, gau pasa eginda joatea egokitu zitzaigun. Derrepentean, inondik ezagutzen ez genuen istorio baten erdian aurkitu ginen: maxkurikadak handik eta hemendik, jo eta jo! Bizipen berritzailea izan zen guretzat, ez baikenekien zer den gorputza kolpez josita oheratzea...

**Zer dela eta heldu zarete Andoainera?**

**F.P.:** Ia ehun mila biztanle dituen Necochea hirikoak gara (Buenos Aires probintzia), bertako Euskal Etxeko bazkide eta dantzariak gara. 2004az geroztik Hator Hona izeneko



Francisco eta Alfonso aurtengo Axeri dantzan.

*“Euskal Herriko egunerokotasunarekin andoaindar askok uste duena baino inplikatuagoak gaude han, Argentinan”*

programa dago abian han; Euskal Herriatik, dantzari, euskal kulturari, gastronomiari... buruzko ikastaroak ematera joaten da jendea, eta urtean poderioz, makina bat harreman sortu dira hango eta hemengoan artean. Hain zuzen, Jon Iraola dantza ikastaroa ematera joan zen 2004an, eta horrela ezagutu genuen elkar. Gu biok, lehendik ere etorriak gaude Euskal Herrira. Ni, 2013an dantza taldearekin ibili nintzen emanaldiz emanaldi; Andoaingo gaztetxean bi aste-ko egonaldia egin genuen.

**A.A.:** Kulturen eta pertsonen arteko oso lotura sendoak eragin ditu programa horrek. Pentsa zein sendoak diren, ezen nire arrebak Usurbilgo mutil bat Necochean ezagutu, berarekin maitemindu eta Usurbilen bertan bizi dela harrezkero.

**Jatorri euskaldunekoak al zarete?**

**A.A.:** Nire birraitonak Nafarroako herrixka batekoak ziren, Argentinara emigratu zutenak.

**F.P.:** Amaren aldetiko nire amonak ere Nafarroan zituen sustraiak, nahiz eta nire lehen abizena italiarra izan eta alemaniarra bigarrena. Nire aitona hango euskal etxean hezi zen, eta tradizio hori belaunaldiz belaunaldi transmititu izan da familian.

**A.A.:** Egia esan, Euskal Herriarekiko atxikimendua familia askoren baitan mantentzen da

han. Txiki-txikitatik, seme-alabak euskal etxeetara eramaten dira, identitate sentimendu hori pizteko. Euskal Etxeak, esate batera, atal ugari ditu (dantza, pilota, basketa, euskara...) eta jendeari erraztasunak jartzeko modu batera edo bestera dauzkan zaletasunak garatu ditzan.

**Diasporan Euskal Herria idealizatu egiten omen da, ez omen da errealitatea ezagutzen. Topiko bat al da?**

**F.P.:** Jendea denetarik topa dezakezu han. Badago jatorri euskalduna duela jakitean, Euskal Etxean dantza taldean sartzen dena eta kitto. Badago, Euskal Herriarekin interesa bizia daukana eta euskarazko eskolara joaten dena... Badago Euskal Herriaren errealitatea gertutik jarraitu nahi duena, eta bide alternatiboak bilatzen dituen informazioa lortzeko. Izan ere, bide tradizioaletatik iritsi izan zaiguna biolentziaren inguruko albistegi ezkorrak izan dira gehienbat. Nolanahi ere, gaur egun, informazioa gertuko eta fidagarria nahi duenak sare sozialetara jo dezake.

**A.A.:** “Euskal Herriko egunerokotasunarekin andoaindar askok uste duena baino inplikatuagoak gaude han, Argentinan”. Esate batera, azken aldian, Korrika txikia antolatu zen han, eta Gure Esku Dago ekimena zela eta hainbat euskal etxeetan oihalak josi eta Anoetako ekitaldira eramantzen ziren.

**Zein futbol taldekoak zarete?**

**A.A.:** Boca Juniors taldekoak!  
**F.P.:** Futbola pasioaren eta grinaren sinonimoa da, erlijioa bezalakoa.



# KIROL ALBISTEAK

## Ana Cerro arku tiratzailea

**A**na Cerro arku tiratzaile andoaindarra Espainiako txapelketatik iritsi berri da. Basoko 3D jardueran ederki gozaten du tiratzaile gutxi dituen kirol horrekin.

### Zer moduz joan da txapelketa?

**Ana Cerro:** Final-zortzirenetan kanporatu naute, baina ez diot garrantzi handiegirik eman nahi horri. Geziak tiratzeko teknika berri batekin trebatzen ari naiz azken aldian, eta etorkizunean emaitza hobekak helduko direla pentsatu nahi dut. Bestalde, asteburu honetan Madrilerla lehiatzen noa berriro.

### Andoain zenbatak dakite zertan zabilzan, nahiz eta txapel-dun handia izan?

**A.C.** Bizilagunek eta ezagunek, ez beste inork. Beti prentsan agertzen diren hiru edo lau kirol horiek kenduta, gainerakoei zailtasunak besterik ez daukate, gizartean zabaltzeko, praktikatu ahal izateko... Arku-tiroak ez dauka diru laguntzarik, eta tiratzaileen bizkar doaz lehiaketetako gastuak. Nolanahi ere, ezin esan bereziki garestia denik; egin kontu, Gipuzkoa eta Euskadiko lehen txapelketak ehun euroko arku batekin irabazi nituen! Aurreztuz eta aurreztuz, orain gutxi 1.200 eurokoa erosi ahal izan dut.

### Zein ezaugarri dauka zure modalitateak, basoko 3D izenekoak?

**A.C.** Basoan praktikatzeko da. Poliespanezko animaliak dira gure geziak jomuga. Zirkuluak jartzen zaizkie gorputzean eta geziak jaurti behar zaizkie aldatzen doazen distantzietatik. Gure arkuak ez du era guztietako armek normalki izan ohi dituzten bisorerik ezta mirarik; horrenbestez, oso kirol instintiboa eta intuitiboa esango nuke.

### Zein ezaugarri edo trebezia behar da tiratzaile izateko?

**A.C.** Fisikoki ez dauka esijentzia handiegirik; izatekotan ere, besoetako muskuluak indartzea komeni da. Funtsean, teknika da garrantzitsua; teknikarik gabe, jai duzu. Zenbait alderdi koordinatu egin



Andoaindarra Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa ugari irabazitakoa da.

behar dira, nolabait: arnaske-ta, kontzentrazioa, sokari zein arkuari eusten dieten eskuen posizioak, gorputzaren postura... Azken batean, kontua mugimendu multzo baten mekanizazioan trebatzea da. Behin hori ikasita, automatikoki ateratzen zaizu tiraldiaren ariketa osoa.

### Zer eskaintzen dizu arku-tiroak?

**A.C.** Satisfazio pertsonal handiak ematen dizkidan kirola da. Lantokian edo bizitzako beste edozein egoeratan estu eta larri nabilenean, ihesbide-tzat hartzen dut. Arku eskuan hartu eta akabo bestelako pentsamenduak; tiraldia ahalik eta biribilena egitea beste asmorik ez daukat buruan. Alde horretatik, kontzentrazio arazoekin dabilzan gaztetxoei arku-tiroa aholkatzen diete adituek.

Lehiaketen munduan nabile-nean, berriz, beti-beti neu naiz neure aurkaririk handiena. Aurretik egin dudana gainditzea da helburu bakarra, ez ondoko lehiakidea baino gehiago izatea. Akaso horrexegatik, kosta egin zitzaidan lehiaketetan parte hartzea. Arku-tiroan murgildu ninduen nire senarrak (Juan Antonio Gullon) hasteko esaten zidan, baina lotsa sentitzen nuen. Teknika ondo nireganatu nuela jabetu nintzenean eman nuen pausoa.

### Zer esango zenioke arku-tiroan interesa eduki arren nora jo ez dakien irakurle horri?

**A.C.** Hasteko eta behin, hastapeneko ikastaroren batean izena eman dezala. Gainera, ez da ahaztu behar arku arma bat dela; normalean ez da istri-purik gertatzen, baina segurtasun neurriak hartu behar izaten dira. Nor bere kasa hasiz gero, saiatzearen saiatzez noski tiratzaile ona izatera iritsi liteke, baina beti faltako zaio teknika.

### PALMARESA

- Euskadiko Txapel-dun 2008, 2009, 2010, 2012, 2013 eta 2014an.
- Euskal Ligako txapel-dun 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2014an.
- Espainiako azpi txapel-duna 2014an.
- Espainiako hirugarrena aretoko modalitatean, 2015ean.

sun neurriak hartu behar izaten dira. Nor bere kasa hasiz gero, saiatzearen saiatzez noski tiratzaile ona izatera iritsi liteke, baina beti faltako zaio teknika.

### Ordiziako elkartereko kidea zara. Antolatzen al dituzue ikastar-ak?

**A.C.** Bai. Badira elkarte gehi-ago Gipuzkoan, baina gurea bakarra da entrenamenduak egiteko lursaila daukana, Gaintza herrian hain zuzen. Hots egin dezake elkartera edo bestela, nirekin harremanetan jarri (ac-banna@gmail.com), elkartereko monitoretako bat naizelako.

Udaletxe edo elkarteren batetik deitzen digutenean, prest egon ohi gara geure trasteak eraman eta jendea irakusteko. Esaterako, Andoain behin izan ginen, Kilometroak ospatu zenean. Hil honen 18-19ko asteburuan Segurara joatekoak gara, erdi aroko jaira. Esango dizut anekdota bezala, orain aurretik, AEKko ikaskideak eta irakaslea Gaintzara eraman nituela. Mintza praktikakako ekimena izan zen, eta egun zoragarria igaro genuen. Idoia irakasleak aitortzen zidan bezala, "behin probatuz gero, harrapatu egiten zaituen kirola da".

## Gaztazaleak taldearen afaria Zumeatarran

Jon Gaztañaga Realeko jokalariek bere zaletuen babesa jaso zuen aurreko astean, Zumeatarra elkartearen egin zuten afarian. Gaztazaleak taldeak dozenaka lagun bildu zituen, eta hitzordura Jonen etxeok ere hurbildu ziren. Dagoen taldean dagoela, hari segika jardungo dutela gogorarazi zioten Andoaingo futbol jokalaria. Pozez eta hunkituta, esker oneko hitzak eskaini zizkien jokalariek zaletuei.




Txapela jarri zioten Gaztañagari.

## Donosti Cup partida ugari Andoain eta Urnietan

Astelehenaz geroztik partida ugari jokatzen ari dira Andoaingo eta Urnietako futbol zelaietan. Urnietan 30 partida inguru, eta Andoain

gehiago. Ostegun arratsaldean eta ostiralean zehar partida gehiago jokatuko dira. Bi zelaietan bertako eta atzerriko taldeak jokatzen ari dira.

## Kaletxikiko krosa, sailkapena



Kaletxikiko lasterketaren hasieratik nabarmendu zen Rodríguez.

### Gizonezkoak:

1	Mikel Rodriguez	23:08	Andoain
2	Javier Perez	23:30	Irun
3	Iñaki Martiarena	23:50	Irun
4	Xabier Satrustegi	24:28	Errazkin
5	Ander Biguri	25:17	Ordizia

### Emakumezkoak:

1	Lourdes Colomo	27:31	Zizurkil
2	Monica Tellebexa	28:10	Irun
3	Uxune Tena	28:20	Andoain
4	Lourdes Balza	28:44	Agurain
5	Ainara Murua	31:25	Zizurkil

### Eskualdekoak:

8	Peio Alkorta	26:46	Andoain
11	Iban Estebez	27:00	Urnietan

12	Ander Zubizarreta	27:06	Urnietan
15	Javier Ruiz	27:36	Andoain
16	Jon Iraola	27:38	Andoain
17	Pedro Godos	27:47	Andoain
18	Bittor Uribe	27:51	Andoain
19	Iñigo Apalategi	27:52	Andoain
22	Iker Tellebexa	28:18	Andoain
23	Uxune Tena	28:20	Andoain
24	Juan Flamarique	28:28	Andoain
26	Angel Carrasco	29:42	Andoain
28	Martin Askarai	30:25	Andoain
31	Alex Hernandez	31:18	Andoain
32	Txetxu Marin	31:20	Andoain
33	Ivan Piñon	31:23	Andoain
37	Rodolfo Parra	32:41	Andoain
38	Luis Gorospe	32:47	Andoain
40	Luis Lopez	32:56	Andoain
41	Pabli Nieto	32:58	Andoain
42	Xabier Berrueta	33:00	Andoain
43	Sara Diaz	33:06	Urnietan
44	J.M.Talavera	34:13	Andoain
48	Joseba Unanue	34:49	Urnietan
49	Javier Gallo	34:59	Andoain
50	Igor L. Arregi	35:05	Andoain
51	Pablo Gabella	35:06	Andoain
52	Mikel Collantes	35:16	Andoain
53	Begoña Cao	35:44	Andoain
54	Gustavo Marques	36:00	Andoain
57	Iñaki Guzman	37:16	Andoain
58	Ramon Fuentes	37:57	Andoain
59	Alberto Solana	37:58	Andoain
61	Jon L. Muniain	38:16	Andoain
62	Igor Otegi	39:35	Ordizia
63	Mª Jose Nuñez	41:50	Andoain
64	G.Amoxategi	44:25	Andoain

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi  
Kultur Buzkaria

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

#### Argitaratzailea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

#### Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

#### Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.com  
Webgunea: www.aiurri.com

#### Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.com  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Laso, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

#### Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.com  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.com

#### Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.  
www.aiurri.com.  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

#### Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.com  
Tel.: 943 300 732

#### Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.

# Agenda

UZTAILAREN 10ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

## Udalgintza

### Urnietan

- Mendeurrenako ekitaldiak: 10:00 Diana. 11:00 Erraldoi eta Buruhandiak. 12:45 Mendeurrenako kantuarren eta dantzaren emanaldia San Juan plazan. Ondoren, herriko sagardo eta gaztagileen dastaketa San Joan plazan. Uztailak 12, igandea.

### Andoain

- Agintaldi berriko lehena. 19:00. Udaletxea. Uztailak 13, astelehena.

## Azokak

### Andoain

- Stock azoka**, Salkin merkatarien elkartearen eskutik. 10:00-19:00 Produktuak sotck-ean eskainiko dituzte. 10:00-12:00 / 17:00-19:00 Bastero inguruan puzgarriak haurrentzat (eurriekin, Ondarretan). Uztailak 18, larunbata.

## Irteera

### Andoain

- Santa Krutz erretiratuen zentroak antolatuta: Castro Urdiales-Isla. Irteera: 09:00, Olagain. Uztailak 18, larunbata.

## Aisialdia

### Urnietan

- Udabentura**, Urnietako Gaztelekuak antolatuta: El Conquistador del fin del mundo ETB-ko programaren probak Adarra mendian. 10:00-14:00. Uztailak 13, astelehena.
- Grosetako hondartzara irteera. Eraman beharreak: bainujantzia, toalla, eguzkitako krema eta bisera. 10:00-14:00. Uztailak 14, asteartea.
- Zaldian ibitzera Legazpira. 10:00-14:00. Uztailak 15, asteazkena.

### Gipuzkoako Txokoak

- Leitzarar bizikletaz. Bizikleta eta kaskoa beharrezkoak dira. Informazioa: Garazi eta Unai 608 928 311.

## Odol-emaileak

### Urnietan

- 18:30-20:30. Anbulategi zaharra. Uztailak 13, astelehena.

## Deialdia

### Urnietan

- Udalak eta Misio batzordeak sinatu duten hitzarmenaren arabera, herriko gazte batek Wucrora (Etiopia) joateko aukera izango du. gazteinformazioa@urnieta.eus

## Ospakizuna

### Urnietan

- Urnietaren 400. urteurrenako ospakizunak. Uztailak 12, igandea.

## Lehiaketa

### Urnietan

- Sanmiel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Lanak Udaletxeko Bertan bulegoan aurkeztu behar dira. Oinarriak: Urnietan.eus. 943 008 000 urnietakoudala@urnieta.eus Epea: Uztailak 17, ostirala.

## Gaztegunea

### Urnietan

- Udako ordutegia: Goizez: 10:30-13:00. Idiazabal, 13 behea. 943 333 973. Irailaren 15era bitarte.

## Musika

### Andoain, Bastero

- Euskal Kammerphilharmonia & Marifé Nogales. Donostiako Musika Hamabostaldia omenaldia egin nahi dio Andoaini 400. urteurren dela eta. Hala, Marifé Nogales kontzertua eskainiko du. Sarrerak dagoneko salgai. 20:00. Bastero. 6 euro. Abuztuak 29, larunbata.

## ZORION AGURRAK

### ZORIONAK



**Manex** Mendizabal Ezeizak 16 urte bete zituen San Fermineguz. Muxu handiak amona Mirenen eta aitona Estebanen partetik. Etxekoak.

ANDOAIN

### ZORIONAK



Datorren uztailaren 8an aitabete bete zituen. Muxu potoloak etxeko guztien partetik! Askomaite zaitugu! Etxekoak.

ANDOAIN


### ZORIONAK



**Leire** Nuñez Larreak, abuztuaren 7an 9 urte beteko ditu. Hemen denok batera, Muxuu... eta primeran pasa zure eguna!

ANDOAIN

### ZORIONAK



Zorionak **Denis** zure 20. urtebetetzean. Muxu handiak gurasoen partetik, zure arreba eta Mikel ilobaren partetik. Uda ondo pasa!

URNIETA

■ ZORION AGURRAK AIURRIN. Whatsapp: 619 163 537.

## 'Urnietan 400' ospakizuna, igande goizean

### Uztailak 12, igandea

Herri izaera lortu zela 400 urte beteko dira. Ekitaldi instituzionala antolatuko dute udaletxean. Egitaraua: 10:00 Diana Txanbolin txistulari bandarekin. 11:00-13:00 Erraldoi eta Buruhandien topaketa. Kalejiran, San Juan plazara iritsi arte.

12:45 Txanbolinek eta Egape dantza taldeak mendeurrenako ikuskizuna eskainiko dute San Juan plazan. Ondoren, herriko sagardo eta gaztagileen dastaketa plazan. Ordezkaritza instituzionalei harrera eta ekitaldi nagusia udaletxean.

## Argazkiak eta bideoak

Oporraldiari ekin aurretik, uztailko azken astekaria uztailaren 16an banatuko

da. Udako jaietako argazkiak eta bideoak aiurri.eus gunean ikusgai izango dira.

## Udal zerbitzuak udan

■ Udal liburutegia, Andoain: Uztailaren: Astelehena: 10:00-13:00-16:30-20:30. Astearte-ostirala: 10:00-14:00.

■ Gazte Lokalean eta Gazte Informazio bulegoan udako ordutegia, Andoain: Astearte-ostirala: 10:00-13:00. Ambrosia Olabide.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA UZTAILAREN 16AN ARGITARATUKO DA

## Stock azoka Andoain

Uztailaren 18an, 10:00-19:00

Kale Nagusian (Bastero inguruan)

UMEENTZAKO PUZGARRIAK

12:00-14:00 eta 17:00-19:00

Euria egiten bada Ondarretan ikusleekin ezango da.

- Amantegi mertzelis
- Xara onetakoak
- Ansa gozotegia
- Emaitza liburu-denda
- Gainera lehiaketa produktuak
- Oskozko lore-denda
- Iruia lurindendi
- Altxa osagailak
- Irujo zapata-denda
- Francis boutique

